

ZUMAIA

## Bi ikus-entzunezkoz osatuko da aurtengo '...eta ibili munduan 2007' zikloa

Baleikek antolatzen duen ekimena Rapa Nui-ren inguruko saioarekin hasiko da gaur

12.12.07 - J.L. ROMATET

ZUMAIA. DV. Munduko zenbait lekutako paisaia, paraje eta, zergatik ez, leize zulo ikaragarrien irudiak ekarriko ditu Baleike kultur elkarteak bere ...eta ibili munduan ekimenaren bitartez. Aurtengo zikloa osatzen duten bi ikus-entzunezkoen bitartez, urruneko eta hurbilagoko lekuak ukituko dira, Polinesiar kokatuta dagoen Pascuako Irla, eta gure Euskal Herria.

Hirugarren urtez antolatzen du Baleike kultur elkarteak ikus-entzunezkoen ziklo hau. Helburu berberak mantentzen ditu: kultur elkarte beraren jarduera zabaltzea, emanaldi hauen bitartez euskararen normalizazioan laguntzea eta, bide batez, Euskal Herriko abenturazale edo bidaiaren bizipenak eta irudiak gerturatzea.

Zikloari hasiera emateko, Rapa Nui, Hotu Matua-ren lurraldea izeneko ikus-entzunezkoa ekarriko dute Gaizka Carretero, Jabier Les eta Urtzi Uriartek. Pascuako irla edo Rapa Nui, bertakoek deitzen zioten bezala, Lurraren zilborra bezala ere izendatua izan zen garai batean.

Hiru lagun hauek osatutako espeleologia taldeak irlan bitzako abenturaren berri emango du eta horretarako hiru dimensiotako argazkiez baliatuko dira. Saioa arratsaldeko 7etan hasiko da Foronda kultur etxeko ganbaran.

Espedizioko kide Jabier Les-ek dioenez, iraganean izandako borroken ondorioz ia desagertuta geratu zen Hotu Matuaren herriaren inguruko misterioa oraindik nabari da irla honetan. Espeleologo honen esanetan, Rapa Nui ez dira antzinako sinismenen arrastoak galdu. Horren adibide bezala, oraindik zutik dauden 800 moaiak edo aurkitu diren milaka aztarna arkeologikoak dira. Les-en ustetan, nortasun propioa duen herria da Unescok 1995 gizon-emakume guztien ondarea bezala izendatu zuen Rapa Nui hau.

Euskal Herrian zehar

Ziklo honetako bigarren saioa ostiralean izango da, arratsaldeko 7etan, baita ere. Egun horretan Mikel Bringas, Rosa amazteak eta Eki semeak Euskal Herrian zehar bizikletan egin zuten ibilbidearen berri emango da.

Egileen esanetan, Euskal Herriko irudi anitza ematen saiatzen dira, «horretarako ibilbidean, besteak beste, aurkituko ditugu: zazpi lurraldeak eta zazpi kapitalak, Zuberoako baserri-giroko tokiak eta Nerbioiko ezkerreko hiri-girokoenak, Urumeako hezetasuna eta Bardeetako idorra, Isturi-tzeko antzinatasuna eta Kursaal-eko modernitatea, Arabako Lautadako ordokia eta Pirineoko maldetako gertutasuna, kostaldeko kresala usaina eta lehorrekoaren zerealarena, Gernikako zuhaitzaren euskal ikurra eta Guggenheimaren nazioarteko onespena».



Leize zulo ikusgarriak aurkitu zituzten espeleologoek Pascuako irlan. [LES]

### IKUS-ENTZUNEZKOAK

Abenduak 12, asteazkena: Rapa Nui, Hotu Matua-ren lurraldea, Gaizka Carretero, Jabier Les eta Urtzi Uriarterena. 19:00etan, Foronda kultur etxean.

Abenduak 14, ostiralak: Euskal Herria bizikletaz: nire lehen bidaia, Mikel Bringasena. 19:00etan, Foronda kultur etxean.

